# ikus puntua

**Bizkaiko ekonomia**
**La economía de Bizkaia**
**#16 martxoa/marzo 2008**

Hau txosten ekonomiko zabalago baten laburpena baino ez da, web honetan eskura daitekeena:/
Versión reducida de un informe económico más amplio disponible en:
**www.berrikuntza.bizkaia.net**
**www.camarabilbao.com**

16

Papel reciclado - Paper birziklatua

| Behatokia | | Observatorio |
|---|---|---|
| 2007ko ekitaldiaren amaieran Bizkaiko ekonomiak indartsu jarraitu du industria dinamismoari eta geroz eta egonkorragoa den lan merkatuari esker, nahiz eta azken hau ahultasun sintoma batzuk erakusten hasi den. Hala ere, hazkunde erritmoa poliki-poliki moteltzen joango da, eta Bizkaiko ekonomi hazkundea euro zonaldekoa baino nabarmen handiagoa izango den arren, tarte hori gutxitzen joango da. | ± | En la recta final del ejercicio 2007 la economía de Bizkaia ha continuado evolucionando con fuerza, apoyada en el dinamismo de la industria y en un mercado de trabajo cada vez más sólido, pero que comienza a mostrar algunos síntomas de debilidad. No obstante, el ritmo de crecimiento se irá paulatinamente ralentizando y, aunque continuará siendo sensiblemente superior al de la zona euro, se irá estrechando el diferencial. |
| **Industriak** sektorerik dinamikoena izaten jarraitzen du nahiz eta hazkundea makalduz doan. | ± | La **industria** continúa mostrándose como el sector más dinámico, aunque atenuando paulatinamente su crecimiento. |
| **Eskabide-zorroaren** bilakaerak beheranzko joera izan du urtean zehar. | - | La **cartera de pedidos**, ha mostrado, a lo largo del año, una tendencia de disminución. |
| **Eraikuntzak** jarduera mailari eusten dio, beti ere moteltze-joeraren barnean. | - | La **construcción** mantiene su actividad dentro de una tónica de ralentización. |
| **Zerbitzu** sektoreak nabarmen egin du gora. | + | El sector de **servicios** progresa apreciablemente. |
| Aurten ere, **garraio azpiegiturek** zifra errekorrak lortu dituzte. | + | Un año más, las **infraestructuras de transporte** alcanzan cifras record. |
| Bizkaiko enpresen **esportazioak** igo egin dira eta inportazioak, berriz, jaitsi. Hori dela eta, merkataritza defizita poliki-poliki zuzentzen ari da. | + | El mayor dinamismo de las **exportaciones** de las empresas de Bizkaia y el menor impulso importador, origina que el déficit comercial se vaya corrigiendo paulatinamente. |
| 2007an, 3.251 **enpresa** sortu ziren, hots, 2006an baino 264 sozietate gehiago. | + | En 2007 se crearon un total de 3.251 **empresas**, lo que equivale a un incremento de 264 sociedades con relación a 2006. |
| Bizkaiko **langabezi tasa** % 4tik % 3,9ra pasa da urtebetean eta poliki-poliki gora egin du kontratu mugagabea duten soldatapekoen kopuruak. Bestetik, aldi baterako kontratuak murriztu egin dira. | + | La **tasa de paro** de Bizkaia pasa en un año del 4% al 3,9%, con aumento de la cifra de asalariados con contrato indefinido y disminución de los contratos temporales. |
| Nazioarteko merkatuetako gorabeherek, eta batez ere finantza mundukoek, aurreikuspen ekonomikoen baikortasuna ezabatu dute. Dirudienez, argi dago hazkunde fasea moteldu egingo dela, batez ere garatutako herrialdeetan, baina ez da ahaztu behar da garatzeko bidean dauden herrialdeek hazten jarraitzeko duten gaitasuna. Nolanahi ere, ekonomi hazkundeak beherantz egiteko arriskua du kreditu-murrizpen handiaren, euroaren indarraldiaren eta lehengaien prezioen garestitzearen ondorioz. | - | Las turbulencias en los mercados internacionales, y en especial en el financiero, se han llevado por delante el optimismo que regía en las previsiones económicas. Parece evidente que la fase expansiva va a moderarse, especialmente en los países desarrollados, pero no debe despreciarse la capacidad de los países emergentes para seguir creciendo. Aún así, el mayor grado de restricción crediticia, el fortalecimiento del euro y el encarecimiento de las materias primas aumentarán los riesgos a la baja. |


BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila
Departamento de Innovación y Promoción Económica

BILBOKO MERKATARITZA GANBERA
CÁMARA DE COMERCIO DE BILBAO

## Industria

Industriak sektorerik dinamikoena izaten jarraitzen du.

Urtean zehar, Industriaren Konfiantza Adierazleak moteltasunerako joera erakutsi du, batez ere, eskabide-zorroak behera egin duelako eta produkzio aurreikuspenek okerrera egin dutelako.

Inkestatutako enpresen % 41ek adierazi dute 2007ko azken bi hilabeteetan ekoizpena gutxitu dutela. Portzentaje horrek erakusten du egoera okerragoa dela aurreko urtekoarekin alderatzen badugu (% 30).

## Industria

La industria continúa mostrándose como el sector más dinámico.

Si bien, el Indicador de Confianza de la Industria muestra una evolución de paulatina desaceleración a lo largo del año, motivado por el retroceso de la cartera de pedidos y el empeoramiento de las expectativas de producción.

La producción se reduce en el último bimestre del año 2007 para el 41% de las industrias encuestadas, un porcentaje que refleja una peor situación que un año antes, período en el que disminuía para el 30%.




**Bizkaiko Industriaren Konfiantza Adierazlea**
Oharra: Industriaren Konfiantza Adierazlea Bilboko Merkataritza Ganberaren Industri Abagunearen Inkestatik lortzen da eta enpresen uneko egoera eta negozio igurikapenak aztertzen ditu.
Iturria: Bilboko Merkataritza Ganbera

**Indicador de Confianza de la Industria de Bizkaia**
Nota: el Indicador de Confianza de la Industria se realiza a partir de la Encuesta de Coyuntura Industrial que elabora la Cámara de Comercio de Bilbao y mide la situación actual y las expectativas de negocio de las empresas.
Fuente: Cámara de Comercio de Bilbao.

Eskabide-zorroaren bilakaerak beheranzko joera agertu du urtean zehar. Enpresen % 50ek adierazi dute azaro-abenduan eskabide-zorro egokia izan dutela ( % 59k 2006an); hala ere, nabarmen igo da eskabide-zorroa gutxitu dutela dioten enpresen portzentajea: % 33 2007ko seigarren bihilekoan, 2006ko % 17ren aldean.

Produkzio gaitasuna egonkor mantendu da, izan ere, 2007ko batez bestekoa % 85ekoa izan da, hots, 2006ko portzentaje berdina.

Inkestako datuek erakusten dutenez sektorearen jarduera gutxitu egin da. Jaitsiera hori adierazle esanguratsuenen garapen aurreikuspenetan ere antzematen daiteke. Produkzio, eskabide-zorro, salmenta edo langile aurreikuspenek balio positiboak agertzen dituzte, nahiz eta ez oso baikorrak izan. Egonkortasunaren aldeko apustu irmoagoa egiteko joera antzematen da, zer gertatuko den zain.

En cuanto a la cartera de pedidos, ha mostrado, a lo largo del año, una tendencia de disminución. En noviembre-diciembre, aunque un 50% de las empresas afirmaba que el nivel de su cartera de pedidos ha sido adecuado (59% en 2006), ha aumentado de forma sustancial el porcentaje de empresas que ha visto disminuir dicha cartera: 33% en el sexto bimestre de 2007 frente al 17% en 2006.

La utilización de la capacidad productiva, sin embargo, se ha mantenido estable, con una media del 85% para 2007, el mismo porcentaje que en 2006.

La menor actividad del sector que muestran los datos de la encuesta, queda reflejada también en las expectativas de evolución de las variables más significativas. Tanto las previsiones de producción, como las de cartera de pedidos, ventas o personal muestran valores positivos, aunque menos optimistas y con tendencia a apostar, de un modo más decidido y a la espera de los acontecimientos, por la estabilidad.

## Eraikuntza

Eraikuntzak jarduera mailari eusten dio, beti ere moteltzejoeraren barnean.

Lizitazio ofizialak, oro har, behera egin du 2006arekin alderatuta, batez ere obra zibilak (- % 24). Eraikuntza, aldiz, pisu erlatibo txikiagoa duena, % 68,2 igo da.

## Construcción

La construcción mantiene su actividad dentro de una tónica de ralentización.

Las cifras de licitación oficial, en su conjunto, presentan un retroceso con respecto a 2006, que se materializa especialmente en la obra civil (-24%), mientras que la edificación, con un peso relativo más reducido, muestra un aumento del 68,2%.

## Zerbitzuak

Zerbitzu sektoreak nabarmen egin du gora.

Merkataritzaren Konfiantza Adierazleak garapen positiboa izan du urtearen zati handienean, hala ere, azken hilabeteetan salmentak gutxitu egin direla antzeman da.

## Servicios

El sector de servicios progresa apreciablemente.

El índice de Confianza del Comercio ha seguido una línea de evolución positiva a lo largo de gran parte del año, sin embargo, en los meses finales se ha podido apreciar una cierta ralentización de las ventas.




**Bizkaiko Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea**
Oharra: Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea Bilboko Merkataritza Ganberaren Merkataritza Abagunearen Inkestatik lortzen da eta enpresen uneko egoera eta negozio igurikapenak aztertzen ditu.
Iturria: Bilboko Merkataritza Ganbera

**Indicador de Confianza del Comercio de Bizkaia**
Nota: el Indicador de Confianza del Comercio se realiza a partir de la Encuesta de Coyuntura Comercial que elabora la Cámara de Comercio de Bilbao y mide la situación actual y las expectativas de negocio de las empresas.
Fuente: Cámara de Comercio de Bilbao.

Aisialdi-turismo sektoreak balantze positiboa izan du 2007an, izan ere, nabarmen igo dira bidaiarien kopurua eta gau-igarotzeak, % 6,8 eta % 4,6 hurrenez hurren. Berriro ere, bidaiarien errekorra lortu da. Guztira 994.357 bidaiari iritsi dira, hots, EAEra iritsi diren bidaiarien % 47,5. Bidaiariek Bizkaiko hotelen batean batez beste emandako egun kopurua 1,84koa izan da, hau da, 2006koa baino pixka bat baxuagoa (1,88). Okupazio maila %45,57koa izan da, aurreko urtekoa baino zertxobait baxuagoa (% 45,82).

El sector de ocio-turismo presenta también un balance positivo el año 2007, con apreciables incrementos tanto en la entrada de viajeros como en las pernoctaciones, del 6,8% y 4,6%, respectivamente. Se alcanzó, de nuevo, un record de visitantes con un total de 994.357, cifra que supone un 47,5% de los viajeros que llegaron a la Comunidad Autónoma Vasca. El número de días que ha permanecido, por término medio, un viajero en un hotel de Bizkaia ha sido de 1,84, ligeramente por debajo del 1,88 de 2006. El grado de ocupación se situó en el 45,57%, inferior también al 45,82% de un año antes.




**Bidaiarien eta hotel-establezimenduetan igaritako gauen eboluzioa**
Bidaiariak
Gau Igarotzeak
Iturria: Eustat

**Evolución de viajeros y pernoctaciones en establecimientos hoteleros**
Viajeros
Pernoctaciones
Fuente: Eustat

## Azpiegiturak

Bilboko Portuko merkatugaien trafikoa % 3,3 hazi da, hau da, guztira 38,4 milioi tona garraiatu dira. Kargatutako merkatugaiak % 2,8 hazi dira eta deskargatutakoak % 3,4. Ontziratu gabeko solidoek hazkunde handiagoa izan dute, % 5,6 hazi baitira (alegia, 5,8 milioi tona). Ohiko merkatugaiak % 5,5 hazi dira eta 9,9 milioi tona erdietsi dituzte eta ontziratu gabeko likidoak berriz, % 1,8 hazi dira (22,7 milioi tona).

## Infraestructuras

El tráfico de mercancías en el Puerto de Bilbao en 2007 ha supuesto un incremento del 3,3%, y un volumen total de 38,4 millones de toneladas. Las mercancías cargadas aumentaron en un 2,8% y las descargadas en un 3,4%. El crecimiento ha tenido lugar de una forma más importante en los graneles sólidos, con un 5,6%, hasta alcanzar los 5,8 millones de toneladas. La mercancía general registró un alza del 5,5%, con 9,9 millones de toneladas y los graneles líquidos se incrementaron en un 1,8%, situándose en 22,7 millones de toneladas.




**Merkatugaien trafikoaren eboluzioa bilboko portuan (Milaka tona)**

Kargatutakoak
Deskargatutakoak

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza.

**Evolución del tráfico de mercancías en el Puerto de Bilbao (Miles de Tm.)**

Cargadas
Descargadas

Fuente: Autoridad Portuaria de Bilbao.

Aurten ere Bilbo-Loiu aireportuak bidaiari kopuru errekorra lortuz itxi du ekitaldia. 2007an zehar, 4.271.599 lagunek erabili zuten Bilboko aireportua, hau da, bidaiarien kopurua %10,4 igo da Estatuko batez bestekoaren gainetik (% 8,7). Hazkundea nabarmenagoa izan da nazioko hegaldietan (% 11,1 gehiago), bestetik, nazioarteko hegaldietako bidaiari kopurua % 7,7 hazi da. Merkatugaien garraioa jaitsi egin da (- % 5,5), izan ere, 3.230 tona garraiatu baitira.

Un año más el Aeropuerto de Bilbao-Loiu cierra el ejercicio con un nuevo record en el tráfico de pasajeros. Un total de 4.271.599 usuarios utilizaron las instalaciones aeroportuarias vizcaínas a lo largo del año 2007. Esta cifra supone un incremento del 10,4%, superior al 8,7% de la media estatal. El crecimiento ha tenido lugar de un modo más importante en los vuelos nacionales, que aumentaron su tráfico de pasajeros en un 11,1%, mientras que los usuarios de vuelos internacionales se incrementaron en un 7,7%. Por lo que se refiere al transporte de mercancías, el aeropuerto movió 3.230 toneladas, lo que supone una disminución del –5,5%.




**Bidaiari trafikoaren eboluzioa Bilbo-Loiuko aireportuan**

Iturria: Aena. Bilboko Aireportua

**Evolución del tráfico de pasajeros en el aeropuerto de Bilbao-Loiu**

Fuente: Aena. Aeropuerto de Bilbao.

## Kanpo merkataritza

Bizkaiko enpresen esportazioak igo egin dira eta inportazioak, berriz, jaitsi. Hori dela eta, merkataritza defizita pixka bat zuzendu egin da. Horrela, Bizkaiko merkataritzak 3.300 milioi euroko balio negatiboa izan zuen 2007ko lehen hamaika hilabeteetan. Kontuan hartu behar da 2006ko hilabete berberetan balioa 4.089 milioikoa izan zela.

2007ko lehen hamaika hilabeteetan metatutako datuek adierazten digute Bizkaiko esportazioak 6.998 milioi eurokoak izan direla eta inportazioak 10.298 milioira iritsi direla. Laburbilduz, esportazioak % 14,8 hazi dira eta inportazioak, berriz, %1,1.

Produktu ez energetikoen bilakaera nabarmenki dinamikoagoa da inportazioetan batez ere. Produktu hauen inportazioak eta esportazioak % 14,8 eta % 16,5 hazi dira hurrenez hurren.

## Comercio Exterior

El mayor dinamismo de las exportaciones de las empresas de Bizkaia y el menor impulso importador, origina que el déficit comercial se haya corregido en parte. De este modo, la balanza comercial de Bizkaia en los once primeros meses de 2007 alcanzó un valor negativo de 3.300 millones de euros, cuando en los mismos meses de 2006 se situaba en 4.089 millones.
Los datos acumulados de los once primeros meses de 2007 muestran que las exportaciones de Bizkaia ascendieron a 6.998 millones de euros, mientras que las importaciones alcanzaron los 10.298 millones. Estas cifras suponen incrementos del 14,8% y 1,1%, respectivamente.

El mercado exterior de los productos no energéticos, y en especial las importaciones, muestran una evolución más dinámica, ya que las compras exteriores se incrementaron en un 14,8% y las exportaciones en un 16,5%.




**Bizkaiko kanpo merkataritzaren eboluzioa (milaka euro)**

Inportazioak
Esportazioak

*urtarrila-azaroa
Iturria: Merkataritza Ganberak

**Evolución del comercio exterior de Bizkaia (mill. euros)**

Importación
Exportación

enero-noviembre
Fuente: Cámaras de Comercio

## Enpresa dinamismoa

2007an 3.251 enpresa berri sortu dira Bizkaian. Jarritako kapitala 394 milioi eurokoa izan da, beraz, enpresa bakoitzeko batez

## Dinamismo empresarial

En el año 2007 se han creado en Bizkaia un total de 3.251 nuevas sociedades con un capital social de 394 millones de euros, lo que

besteko kapitala 121.115 eurora iritsi da. Horrek esan nahi du, aurreko urteko aldi berean baino 264 sozietate berri gehiago sortu direla (2.987 enpresa).

supone un importe medio por empresa de 121.115 euros. Esta cifra supone un incremento en 264 nuevas sociedades sobre la cifra del año 2006 que se situó en 2.987 empresas.




**Empresa sorreraren eboluzioa**

Iturria: Merkataritza Erregistroko Buletina

**Evolución de la creación de empresas**

Fuente: Boletín del Registro Mercantil.

Aurten ere, sortu berri diren enpresa gehienak zerbitzuen sektorekoak dira, % 66 alegia, kapital sozialaren % 49 ordezkatzen dute eta 244 sozietate gehiago dago. Eraikuntzaren sektorean 603 enpresa sortu dira, hau da, 2006an baino 41 konpainia gehiago dago, Bizkaian sortutako konpainia guztien % 18,5 dira eta kapital sozialaren % 49 ordezkatzen dute. 2007an sortutako sozietateen % 14,5 industriaren sektorekoak dira eta kapital sozialaren % 1,6 ordezkatzen dute.

Una vez más son las actividades relacionadas con el sector de Servicios las que ocupan el primer puesto con un 66% de las nuevas empresas creadas, un 49% del capital social y un crecimiento en 244 sociedades. En el sector de la Construcción se han constituido 603 nuevas compañías, 41 más que en 2006, suponiendo un 18,5% de las empresas creadas en Bizkaia, con un 49% del capital social. Un 14,5% del conjunto de sociedades creadas en 2007 corresponden al sector industrial, con un 1,6% del capital social.

## Lan merkatua

2007ko laugarren hiruhileko datuek adierazten dutenez, langabezi tasa (% 3,9) aurreko urteko aldi berekoa baino 0,1 puntu baxuagoa da. Emakumeen langabezi tasa % 4,1era jaitsi da (0,5 puntu gutxiago). Gizonezkoena aldiz, bi hamarren igo da eta % 3,7koa da. Bizkaiko langabezi tasa euro zonaldekoa (% 7,2) eta EB-27koa (% 6,9) baino baxuagoa da (portzentajezko hiru puntu baino gehiagoko aldea).

Azken hamabi hilabeteetan, Bizkaian 2.600 landun gehiago dago (% 0,5), hau da, Bizkaiko lan merkatua euskal merkatua baino dinamikoagoa izan da (% 0,3). Gizonezkoen kolektiboa egonkor mantendu da; emakumezkoenak aldiz, %1,2ko hazkundea izan du. Sektoreka, zerbitzu sektorea izan da lanpostu gehien sortu dituena (5.500 lanpostu berri). Jarraian, eraikuntza sektorea dago zeinak 1.000 lanpostu garbi gehiago sortu dituen. Industriak, ordea, ez du horren bilakaera positiboa izan eta landunen kopurua jaitsi egin da (4.600 landun gutxiago) sektore honetan.

Eustat-en datuek diotenez, azken urtean, kontratu mugagabea duten soldatapekoen kopurua % 6,6 hazi da (20.900 pertsona gehiago). Aldiz, aldi baterako soldatapekoen kopurua (kontraturik ez dutenak barne) -% 22,8 jaitsi da (20.800 pertsona gutxiago).

## Mercado de trabajo

Los datos del cuarto trimestre de 2007 muestran una tasa de paro (3,9%) inferior en 0,1 puntos a la del mismo trimestre del año anterior. La tasa de paro femenina baja al 4,1% (0,5 puntos menos), mientras que la masculina sube dos décimas de punto, situándose en el 3,7%. La tasa de paro de Bizkaia es más de tres puntos porcentuales inferior a la de los países de la Zona Euro (7,2%), así como a la tasa del conjunto de la UE-27 (6,9%).

La población ocupada de Bizkaia ha crecido en los últimos doce meses en 2.600 personas (0,5%), mostrando un mayor dinamismo que el conjunto del mercado vasco donde el crecimiento fue del 0,3%. El empleo en el colectivo masculino se ha mantenido prácticamente estable, mientras que en el femenino el incremento ha sido de un 1,2%. Por sectores, el sector de servicios es el que más empleo ha generado con 5.500 empleos adicionales, seguido por la construcción con un aumento de 1.000 empleos netos. Sin embargo, el comportamiento no ha sido tan positivo en el sector industrial, donde el descenso de la población ocupada ha sido de 4.600 personas.

Los datos del Eustat muestran también que, en el último año, el número de asalariados con contrato indefinido ha aumentado en 20.900 personas (6,6%), mientras que la cifra de asalariados eventuales (incluyendo aquellos sin contrato) ha disminuido en 20.800 (-22,8%).




**Langabezi tasaren eboluzioa (%-tan)**
Iturria: PRA. EUSTAT

**Evolución de la tasa de paro (en %)**
Fuente: PRA. EUSTAT

| BIZKAIKO EKONOMI ADIERAZLEAK | Iturria | Epea | 2006 | 2007 | % variac. |
|---|---|---|---|---|---|
| JARDUERA | | | | | |
| - Industriaren Konfiantza Adierazlea | CCB | Azaroa-abendua | 0 | -2 | -- |
| - Industri Produkzioaren Indizea (1) | EUSTAT | Abendua | 110,2 | 109,5 | 2,5 |
| - Industriako Energia Elektrikoaren Kontsumoa (milaka MWh) | IBERDROLA | Urtarrila-abendua | 8.364 | 8.676 | 3,7 |
| - Produkzio Gaitasunaren Erabilera (%) | CCB | Azaroa-abendua | 87 | 84 | -- |
| - Eskabide-zorroa (2) | CCB | Azaroa-abendua | -1 | -16 | -- |
| - Lizitazio Ofiziala (milioi euro) | SEOPAN | Urtarrila-abendua | 1.682 | 1.537 | -8,6 |
| - Bilboko Portuko merkatugaien Trafikoa (milaka tona.) | AUT. PORT. | Urtarrila-abendua | 37.208 | 38.422 | 3,3 |
| - Loiuko Aireportuko bidaiarien Trafikoa (milaka pertsona) | AENA | Urtarrila-abendua | 3.871 | 4.272 | 10,4 |
| - Gau Igarotzeak hoteletan (milaka pertsona) | EUSTAT | Urtarrila-abendua | 1.746 | 1.827 | 4,6 |
| - Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea | CCB | Azaroa-abendua | -38 | -17 | -- |
| ESKABIDE ETA PREZIOAK | | | | | |
| - Kontsumitzailearen konfiantza adierazlea | FCVN | IV. hiruhilekoa | 96 | 88 | -- |
| - Ibilgailuen Matrikulazioa | DGT | Urtarrila-abendua | 29.307 | 27.423 | -6,4 |
| - Industri Ibilgailuen Matrikulazioa | DGT | Urtarrila-abendua | 7.137 | 7.446 | 4,3 |
| - Bizkaiko KPI | INE | Abendua | 101,2 | 105,5 | 4,2 |
| - Txikizkako Merkataritzaren salmenten Indizea (3) | EUSTAT | IV. hiruhilekoa | 134,0 | 139,2 | 3,5 |
| LAN MERKATUA | | | | | |
| - Biztanle Okupatuak (milaka pertsona) | EUSTAT | IV. hiruhilekoa | 503,1 | 505,7 | 0,5 |
| - Biztanle Langabetuak (milaka pertsona) | EUSTAT | IV. hiruhilekoa | 20,8 | 20,3 | -2,4 |
| - Langabezi Tasa (%) | EUSTAT | IV. hiruhilekoa | 4,0 | 3,9 | -- |
| - Erregistraturiko Langabezia (milaka pertsona) | INEM | Abendua | 42,2 | 38,0 | -33,6 |
| - Gizarte Segurantzako Afiliatuak (milaka pertsona) | MTAS | Abendua | 481,2 | 493,0 | 2,4 |
| KANPO SEKTOREA | | | | | |
| - Esportazioak (milaka euro) | ADUANAS | Urtarrila-azaroa | 6.094 | 6.998 | 14,8 |
| - Inportazioak (milaka euro) | ADUANAS | Urtarrila-azaroa | 10.184 | 10.298 | 1,1 |
| ENPRESA DINAMISMOA | | | | | |
| - Sozietateen sorrera | CCB | Urtarrila-abendua | 2.987 | 3.251 | 8,8 |

(1) Aurreko urteko aldi berarekin konparatuz izandako gehikuntza
(2) Erantzunen saldo garbia
(3) Aurreko urteko aldi bereko batez bestekoaren gaineko gehikuntza

| INDICADORES ECONÓMICOS DE BIZKAIA | Fuente | Período | 2006 | 2007 | % variac. |
|---|---|---|---|---|---|
| ACTIVIDAD | | | | | |
| - Indicador de Confianza de la Industria | CCB | Noviembre-diciembre | 0 | -2 | -- |
| - Índice de Producción Industrial (1) | EUSTAT | Diciembre | 110,2 | 109,5 | 2,5 |
| - Cons. de Energía Eléctrica en la Industria (miles MWh) | IBERDROLA | Enero-diciembre | 8.364 | 8.676 | 3,7 |
| - Utilización de la Capacidad Productiva (%) | CCB | Noviembre-diciembre | 87 | 84 | -- |
| - Nivel de la cartera de pedidos (2) | CCB | Noviembre-diciembre | -1 | -16 | -- |
| - Licitación Oficial (millones euros) | SEOPAN | Enero-diciembre | 1.682 | 1.537 | -8,6 |
| - Tráfico de mercancías Puerto de Bilbao (miles Tm.) | AUT. PORT. | Enero-diciembre | 37.208 | 38.422 | 3,3 |
| - Tráfico de pasajeros Aeropuerto Loiu (miles personas) | AENA | Enero-diciembre | 3.871 | 4.272 | 10,4 |
| - Pernoctaciones en hoteles (miles de personas) | EUSTAT | Enero-diciembre | 1.746 | 1.827 | 4,6 |
| - Indicador de confianza del Comercio | CCB | Noviembre-diciembre | -38 | -17 | -- |
| DEMANDA Y PRECIOS | | | | | |
| - Índice de confianza del Consumidor | FCVN | IV trimestre | 96 | 88 | -- |
| - Matriculación de Automóviles | DGT | Enero-diciembre | 29.307 | 27.423 | -6,4 |
| - Matriculación de Vehículos Industriales | DGT | Enero-diciembre | 7.137 | 7.446 | 4,3 |
| - IPC Bizkaia | INE | Diciembre | 101,2 | 105,5 | 4,2 |
| - Índice de Ventas del Comercio Minorista(3) | EUSTAT | IV trimestre | 134,0 | 139,2 | 3,5 |
| MERCADO LABORAL | | | | | |
| - Población Ocupada (miles personas) | EUSTAT | IV trimestre | 503,1 | 505,7 | 0,5 |
| - Población Parada (miles personas) | EUSTAT | IV trimestre | 20,8 | 20,3 | -2,4 |
| - Tasa de Paro (%) | EUSTAT | IV trimestre | 4,0 | 3,9 | -- |
| - Paro registrado (miles personas) | INEM | Diciembre | 42,2 | 38,0 | -33,6 |
| - Afiliados a la Seguridad Social (miles personas) | MTAS | Diciembre | 481,2 | 493,0 | 2,4 |
| SECTOR EXTERIOR | | | | | |
| - Exportaciones (millones de euros) | ADUANAS | Enero-noviembre | 6.094 | 6.998 | 14,8 |
| - Importaciones (millones de euros) | ADUANAS | Enero-noviembre | 10.184 | 10.298 | 1,1 |
| DINAMISMO EMPRESARIAL | | | | | |
| - Creación de sociedades | CCB | Enero-diciembre | 2.987 | 3.251 | 8,8 |

(1) Incremento con relación al mismo período del año anterior. Datos corregidos a efecto de calendario
(2) Saldo neto de respuestas
(3) Incremento acumulado sobre el mismo período del año anterior. Precios constantes

Papel reciclado - Paper birziklatua -